

Erabiltzaileak ordaindu beharreko kuotak diru sarrerarik garrantzitsuenak izan arren, beste hainbat irabazi iturri izango ditugu.

Gure diru sarrera nagusia erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota izango da. Hainbat aukera izango dituzte etortzeko, eta hauek izango dira ordaindu beharreko kuotak:

Kontuan hartu, aste bakoitzean 8 saio egongo direla, eta beste ekintza bat asteburuetan. 10 pertsonako 4 talde egingo ditugu, orduan 40 erabiltzaile izango ditugu proiektua hasteko.

Hona hemen bezeroei eskaintzen dizkiegun eskaintzak. Gure ikastetxean parte hartzen duten lehen aldia bada, seme-alaba bakoitzeko 70 € ordaindu beharko dira.

Aste bat	48 €
Hilabete bat	168 €
3 hilabete	420 €
6 hilabete	630 €
Urte bat	1010 €

Bi neba-arrebak etorritz gero:

6 hilabete	450 euro
Urte bat	870 euro

Familia batzuen egoera ekonomikoa baxua delar jakinez, eta gizarte inklusibo bat lortu nahi dugunez, aukera izango dutediruz kopuru hori ez ordaintzeko eta gure zerbitzuak erabiltzeko. Horretarako, umeen gurasoek baserria mantentzeko lanak egin beharko dituzte: baserriko materiala konpondu, baserria garbitu, baratzean lan egin, animaliak zaindu, animalien ondasunak atera... Bestalde, asteburuetan egingo diren ekintzetara guri laguntzen etortzeko. konpromisoa hartu eta kontratu bat egingo zaie

Horrela, hartu eman bat ere sortuko da enpresa eta erabiltzaileen artean. Alegia, gure zerbitzuak ordaindu ezin dituztela bermatzekobeharrezko ziurtagiriak erakutsi beharko dute

Horrez gain, beste irabazi iturri batzuk ere izango ditugu. Baserriak dituen baliabideak aprobetxatuz herriko merkatura irtengo gara produktuak saltzera: ortuko barazkiak, animalietatik eratorritakoelikagaiak, fruta...

Gainera, hektarea bateko lursail bat dugu, bertan landatu daiteke (letxugak, kalabazak, tomateak, orburuak, erremolatxak, azenarioak, perrexila, ziazerbak...) eta lursail hori alokairuan jarriko genuke. Alokatzeko 4 lur-zati izango ditugu. Lurra baratzeetarako erabili behar da. Lursail bakoitzaren alokairua 350 €-koa da hilean

Beste irabazi iturrietako bat beste enpresa batzuekin egingo ditugun elkartasun jarduerak izango dira, esate baterako: merkatura goazenean propaganda egin, gure produktuak haiei saldu...

Irabazi iturriak hileroko:

Matrikula (20 bezero)	1400 euro
Erabiltzaileek ordaindu beharreko kuota (20 bezero)	5282 euro
Baserriko ondasunen salmenta	1280 euro
Beste enpresekin elkar lana	2125 euro
Lurraren alokairua (baratzeak)	1400 euro
Guztira	10.087 euro

Dirua irabazteko ditugun baliabideetan oinarrituz, 10.087 euro irabaziko ditugu hileroko, hortik zati bat hileroko ditugun kostuak ordaintzeko erabiliko da eta beste aldetik, Matrikula 1400 eurokoa izango da 20 bezerorekin.